


Gure bazterrak

Denok dakigu, gutxi gora behera, zeintzuk diren Donostiako mugak. Gauza jakina da ekialdean Pasaia dagoela, mendebaldean Orio, eta abar. Begirada zorrotzago batek hainbat bitxikeria erakusten digu. IRUTXULOk txangoa egin du Donostiako mugetan barrena, eta ikusi eta ikasitako guztia honaxe ekarri dugu, zuk zeuk, donostiar horrek, zure hiriaren nondik norakoak hobeto eza-gutu ditzazun.

Jon Arrue

donostiak, enklabeak kontuan izan gabe (gero mintzatuko gara horietaz), zazpi herrirekin ditu mugak. Mendebaldetik ekialdera, Orio, Usurbil, Lasarte, Hernani, Astigarraga, Orereta eta Pasaia dira, hain zuzen, zazpi herriok. Garai bateko

**Azkuene kaleko
Donostiako
aldea Pasaiakoa
baino garbiago
dago**



Trintxerpeko Azkuene kalea Pasaia eta Donostiaren arteko muga da; mendebaldeko aldea donostiarra da eta ekialdea, berriz, pasaitarra. Banaketa honek hainbat egoera bitxi sortarazten du.


eskolan herrialdeen mugak ikasteko erabiltzen zen metodoa aplikatuz gero, hemen ere, doinu errepikakor batez lagundurik, esango genuke zerrenda: “Donostiak Oriorekin du muga mendebaldean, Usurbilekin hegomendebaldean, tralarara...”. Erdaraz jakina. Baina, eta hau da garrantzitsuena, garai hartan ez genukeen abestuko zerrenda berbera. Izan ere, Donostiako gaur egungo mugak nahikoa berriak dira. Are gehiago: alde batzuetan zehazten ari dira orandik.

Donostia “inperiala”

Azken aldaketa garrantzitsua duela hamarren bat urte eman zen, Astigarragaren desanexioaz batera. Egia esan, “anexioa” bera ere ez zen luzeegia izan: Espainiako Gerrate Zibilaren ostean bereganatu zituen Donostiak Astigarraga eta Altza herriak. Erraz imajinatuko zenutenez, ordura arte Donostiak mapan zuen itxura oraingoaren oso desberdina zen. Batez ere Altza zer den kontuan hartzen badugu. Ez baita soilik

gaur egun izen horrekin eza-gutzen duguna, askoz gehiago baizik. Esate baterako: Altza bereganatzeari esker du Donostiak Pasaiarekin eta Oreretarekin muga. Frankismoak agindutako elkartzeko hura izan da, garai modernoetan behintzat, Donostiako mugek inoiz izandako aldaketarik handiena.

Iñigo Landa Altzako Historia Mintegiko kidea da. Berak azaldu digunez, beraien lana Altzari buruzko informazioa (agiri zaharrak, prentsan agerturiko albisteak...) jaso eta zabaltzea da.



“1940an, gerra irabazi ostean, Francok Altza eta Astigarraga sartu zituen Donostian. Bere filosofia nazio handia egitea zen, eta hiriak ere handiak nahi zituen”, esan digu Landak. Udaletxean sartu ziren zinegotzi frankistek ahabideratu zuten Donostiaren handitze hura, eta ez zen, ez, makala izan. “Uliako pasealekuan dago muga”, dio Landak. Garai batean Altza eta Donostiaren arteko muga zenaz ari da noski. Iparreko muga litzateke hori; hegoaldeetik, Urumearekin bat egiten du muga horrek alde batzuetan.

**Espainiako
Gerraren
ondoren
bereganatu
zituen
Donostiak
Astigarraga eta
Altza herriak**

Ibaitik ekialdera, Astigarragak Donostiarekin gaur egun duen muga Altzarekin egiten du. Izan ere, Ategorrieta, Bidebieta,

Akatsez jositako mapa

Irudi hau Donostiako Turismo Bulego batean erosi dugun mapatik hartua da. Erreportaia honetan izan ditugun hainbat mintzakidek esan digute akatsak dituela. Beste batzuk begibistakoak dira. Pasaia San Pedro eta Antxo, adibidez, Donostia dira, irudi honi kasu egin behar badiogu. Zubieta mugak ere bi modu desberdinetara ematen zaizkigu. Hemen ez da ageri Zizurkilekin mugarik; mapa bereko beste irudi batean, ordea, bai. Bestela, mapak ondo balio digu distantziez jabetzeko. Ederki asko ikus daiteke, esaterako, Zubieta eta Donostiako erdigunearen artean dagoen tarte, edota Artikutza (Donostiako muturrrik hegoaldekoena) noraino iristen den. Portzierto, ia Donostia bera (Donostia metropolitanoa, nolabait adierazteko) bezain handia da Artikutza. Enklabeak kontuan izan gabe, Donostiak mugarik luzeena Usurbilekin eta laburrena Lasarterekin dituela ohartaraz gaitzke.


Trintxerpe, Intxaurrendoko zati bat eta Martuteneko beste bat... Altxa dira, izatez, Landaren azalpenen arabera. Gure mapan ageri ez den enklabe bat ere Altxari dago-kio (*"KTEk argitaraturiko mapa txarra da zinez"*, kexu da Landa). Hau da, izen hori duen auzoa baino askoz eremu zabalagoa, eta askoz muga luzeagoak, beraz.

Muga-mugan dagoen kalea

Trintxerpen dago, hain zuzen, Donostiak alboko herriren batekin banatzen duen mugarik deigarriena-tarikoa: Azkuene kalea. Iparraldetik hegoalderanzko norabidea du Azkuenek; mendebaldea donostiarra da

Zubietako donostiarrak Usurbilgo anbulategira joaten dira

eta ekialdea, berriz, pasaitarra. Banaketa horrek hainbat bitxikeriaren gune bihurtu du kalea. Adibidez, eta izena eman nahi izan ez duen auzo-kide batek esan digunez, *"Donostiako aldea askoz garbiagoa da; goizero-goizero, udal langileak ikus daitezke urez espaloiak garbitzen"*. Dena den, argitu du, Pasaiaiko aldean ere hasi dira gero eta



Garai batean irudiko kartel hau ikus zitekeen Orio eta Donostiaren arteko mugan. Kartela Igeldoko herri batzarreko kideek jarria zen.

gehiago txukuntzen, baina desberdintasuna nabaria da oraindik. Kaletik ibilalditxoa egitea nahikoa da bi espaloien arteko aldeaz ohartzeko, egia esan.

Abantaila guztiak ez daude, ordea, alde berean: Pasaiaikoak diren azkueneta-rrentzat askoz hurbilago daude udaletxea eta, oro har, udal zerbitzuak. Bestalde, epaitegiko funtzionarien amesgaiztoa bilakatu da Azkuene, hango langile batek adierazi digunez: *"Behin baino gehiagotan etortzen zaigu zitazioren bat atzera, ohartxo batekin: 'helbide hau ez dagokio Donostiari', edo antzekoren bat"*.

Donostiar artxipelagoa

Santa Klara ez da Donostiako uharte bakarra. Lehorrean ere badira, ugariago eta handiagoak. Batzuk

urruti samar ere bai. Astigarraga, Hernani eta Oreretaren erdian Landarbaso dago (ikus mapa). Artikutzako lurrak, berriz, guztiz Nafarroa barruan daude (iparreko muga Oiartzunekin dute). Oberraneko lursailek ere (zati bat Altxarena da) Nafarroa ukitzen dute hegoalde-tik. Donostiak, hortaz, badu muga, teknikoki behin-behin, Nafarroako hainbat herrirekin: Arano, Lesaka, Goizueta eta hain hegoaldean dagoen Zubietarekin. Zantzarren Zubieta.

Hori Nafarroako Zubieta da. Baina Gipuzkoan ere badugu Zubieta bat, eta zati bat Donostiarena da. Zubietaz pixka bat gehiago jakiteko, bertako Herri Batzarreko kide eta alkate ohi Xabier Arregirekin mintzatu gara. Lehenik, eta Landak bezalaxe, begi aurre-



Donostiako mugen azken aldaketa garrantzitsua duela hamarren bat urte gertatu zen, Astigarragaren desanexioaz batera. Frankismo garaian, Altza herria anexionatzearekin batera, Donostiak Pasaia eta Oreretaraino zabaldu zituen mugak.

**Teorian
Donostiak muga
du Nafarroako
Goizueta,
Lesaka eta
Zubietarekin**

an ipini diogun mapari hainbat kritika egin dio: Donostiako mapa izan arren, Zubietak osorik ageri da, Usurbilgo zatia barne. Ez du muga zehazten. Dena den, argitu egin behar da hauexek direla, arestian aipatu denez, Donostiak oraindik finkatzeko dituen mugak. Zubietak barrukoak hain zuzen. Arregirik adierazi duenez, "bi udalen artean adostasuna dago, baina herritarren batek ez du lur sailen banaketa ontzat eman oraindik. Aurten eskari judizial batzuk izan

dira gaiari buruz".

Bestalde, Zubietak baditu hainbat berezitasun. Berez Donostiatik kanpo egonik, hiriaren erdigunea oso urrun dago bertatik: hamabi kilometro inguru; zer esanik ez, hainbat oinarritzko zerbitzu. Anbulategirik hurbilena, "Antiguakoa izango da", 10 kilometrora dago, Arregiren kalkuluaren arabera. Horregatik, eta Zubietako Herri Batzarraren kudeaketari esker, enklabeko biztanle guztiek Usurbilen dute medikua. "Administratiboki gauzak era batez funtzionatzen dute", dio Arregirik, "baina eguneroko bizitzan logikak beste zerbait eskatzen du". Logika ez da, baina, beti nagusi. Udalean gestioaren bat egiteko, donostiar-zubietarrek makina bat kilometro egin behar izaten dute. Donostia, egon, tokitan dago eta.

IRUTXULO

Donostiako astekaria

eta

GAZTE TXULO

Donostiako gazteen hlabefekaria

**zure etxean jaso
nahi badituzu...**

deitu orain

943-429593

telefono zenbakira

Postaz bidali

Izen-deiturak:

Telefonoa:

Helbidea:

Kodea: Herria:

- Gutxieneko kuota: 2.500 pezeta / BEZa bane
- Kuota berezia: 5.000 pezeta
- Borondatezko kuota: (zuk erabaki kopurua)
- BAGERAkideen kuota: 1.500 pezeta / BEZa bar.

Kontu zenbakia:

Entikatea Sukurtsala

K.D. Kontu zenbakia

Helbide elektronikoa: **txulo@euskalnet.net**

IRUTXULO, San Joan kalea 14, 20003, DONOSTIA
Tfnoa.: 943-42.68.07 • Faxa: 943-43.11.90